## *Humanitatearekiko baja gutuna*

[ El Pressentiment-ko erredakziora bidalia, 2012ko abenduaren 9an. ]

33 urte dauzkat eta Krisiaren seme naiz, neoliberalismora eraman gintuen Kapitalismoaren oromena markatu zuen 1979ko Krisiarena.

Existitzen ez den hiri baten periferian hezi nintzen, xiringa kolpez markatutako 80 garren hamarkadako pribolitateak inguratuta.

Mtvko bideoek elikatutako 90 garren hamarkadako gazteriaren depresioan barneratuta sartu zitzaidan Seattle neure etxea balitz bezela. Eshatzen saiatzen ari zen "Seattle berri" horren parte nintzela uste izan nuen, milurteko berri horren hasieran. Bidaiatu, oihukatu eta negar egin nuen aldaketa sozialaren desioa akabatzeko beharrezko zen heriotz dosi hori eman ziguten arte.

Markekiko desioa bertan behera utzi nuen, Gora-Estatuari beldurra galdu nion, neure bizitza subertsio ekintza bat bilakatuaz. Gurasotasun berri batez berjaio nintzen, arraro edo anormalena, demokraziarekin itun egin ez zutenena, pentsamendu eta bizitza modu berri bat irakiki zutenena.

Inozenteki, mobilizazio globalaren barnean lan eta bizi eremu berri bat irekitzen saiatzeko ausardia izan nuen, lortu nuen bakarra, ordea, existentziaren mobilizazio hontan are eta gehiago hondoratzea izan zen, sistema erreproduzitzeko porrotak gehituaz.

Krisia deitzoten marela hontan heldu naiz, protokolo kolpez langile mugimendu zaharraren garaipen guztiak nola lapurtzen dizkiguten ikusiaz.

Politica ogotio hutsa denean erabakiak espezialistek bakarrik har ditzaketenean, Estatu-Empresak gero eta biolentzia gehiago behar duenean gezur orokor hau mantentzeko, aukerkeria guzti honen parte izateari uko egiten diot.

Hiritar izateaz gain, hau da, diruaren truk eskubideak izateaz gain beste irtenbiderik ez dagoenaren aurresentipena dut... desastre honen gestoreen parte, miseriaren ekintzaileen parte izateari uko egitean, bandera, aberri edo nazio orori uko egitea...

Kontratu sozialarekiko desobedientzia eta desertzioan benetan naiz hutsera zuzenduaz, zulo beltz hortara, non ezereza ezerez den. Egunen batean, behar bada, une batez errealitate izpi bat sartuko den espazio hontan babestuko naiz.

Ilunpean eta norabezean une hori itxaroten dut, XXI mendeko gau hontan itsu eta galdurik, itsumustuka, beste aurpegi batzuk antzemateten ditugun une hori, haiekin lengoaia berri bat zezeldu, hitza berriz hartu eta "gu" baten moduko zerbait eraiki dezagun.

KOPIATU ETA BANA EZAZU